**OINARRIAK**

**LEGAMIA 2024. ARTE BIZIEN SORKUNTZA ETA BITARTEKARITZA EGONALDI PROGRAMETA-RAKO BEKAK EMATEKO OINARRI ZEHATZAK.**

**LEHENENGOA.- Aurkezpena eta xedea**

Errenteriako Udalak kultura eta sormena definitu ditu gizarte garapenaren oinarri nagusien artean. Bide honetan, zehaztu duen eredua sorkuntzaren sustapena, mediazioaren lanketa, partaidetza eta talde lana, berezko nortasuna edota kultur hezkuntzaren balioetan errotzen da.

Herritarrak kulturaren erdigunean kokatu nahi ditu, rol aktibo bat aitortuz eta sorkuntza prozesua, sortzaileak eta herritarren elkarlan espazioak gizarte kohesiorako eta bizi osoko ikaskuntzarako tresna gisa baliatu.

Testuinguru honetan, Errenteriako Udalak *Legamia* izeneko egitasmoa sustatu du. Errenterian errotu eta eragina izango duen egonaldi eta mediazio programa baten bidez, arte biziei (antzerkia, dantza, zirkua) loturiko proiektu artistikoen sorkuntza eta ikerketa prozesuak, edozein fasetan daudela ere, babestu, erraztu eta laguntzea du helburu.

**BASES**

**BASES ESPECÍFICAS PARA LA CONCESIÓN DE LEGAMIA 2024: BECAS PARA PROGRAMAS DE RESIDENCIAS DE CREACIÓN Y MEDIACIÓN DE ARTES VIVAS.**

**PRIMERA.- Presentación y objetivos**

El Ayuntamiento de Errenteria define la cultura y la creatividad como bases principales para el desarrollo social. El modelo definido se sustenta sobre el fomento de la creatividad, el trabajo de mediación, la participación y el trabajo en equipo, la identidad propia y valores sustentados en una sólida educación cultural.

Pretende situar a la ciudadanía en el centro de la cultura, reconociéndola un rol activo, y utilizando el proceso creativo, las personas creadoras y los espacios de colaboración como herramientas para la cohesión social y el aprendizaje a lo largo de toda la vida.

En este contexto, el Ayuntamiento de Errenteria ha impulsado el programa Legamia, al objeto de proteger, facilitar y acompañar la creación de proyectos de artes vivas (teatro, danza, circo) y procesos de investigación, sin importar en qué fase se encuentren, mediante un programa de residencias.

Horrekin batera, Errenteriako Kultura departamentua eta honekin lankidetzan aritzen diren eragileen artean garatzen den mediazio plangintza baten bidez, sorkuntza bera Errenteriako eragile eta herritarrekin partekatzeko asmoa da programa honen ezaugarri nagusienetakoa. Hezkuntza sektorearekin modu nabarmen batean, baina baita elkarteekin, persona nagusien erresidentziekin, enpresekin, Udaleko beste sailekin… Sorkuntza prozesuaren partekatze honen bidez herritarrei esperientzia artistiko interesgarri bat eskaintzeaz gain, sortzaileentzat eta sormen prozesu hauentzat ere ekarpen aberasgarriak sortzea bilatzen da. *Legamiarekin* gertatzen den bezala, sorkuntza prozesuak eta hauetan parte hartzen duten guztiak hazi eta ondu ahal izatea.

Además, gracias al equipo de mediación que se conforma entre el Departamento de Cultura de Errenteria y los agentes que colaboran con ella, se pretende que estos procesos de creación se puedan realizar de manera compartida con agentes locales y con la ciudadanía, lo que será una de las principales características de este programa. Se persigue trabajar con el sector educativo principalmente, pero también con asociaciones, residencias de personas mayores, empresas, otras áreas municipales… A través de la participación activa en estos procesos se pretende, además de ofrecer a la ciudadanía una experiencia artística interesante, favorecer la generación de aportaciones enriquecedoras para las personas creadoras y sus procesos creativos. Al igual que con la levadura, a través de estos procesos, *Legamia* propone que las creaciones y las personas que participen en ellas puedan crecer y madurar.

Elkarlan prozesu hauek, egonaldiaren alderdi gehienak bezala, sortzailearen, programan parte hartzen duten eragileen, eta Kultura Departamentuaren arteko entzumen ariketa eta elkarrizketaren ondorioa izango da. Sormen prozesuak babestu, duten behar eta erritmoei egokitu, baldintza eta bitartekoak baliatu eta prozesu hauen inguruan esperientzia aberasgarriak eraikitzea da, beraz, programa honen helburua.

Estos procesos colaborativos, como la mayoría de los aspectos de las residencias, serán fruto de un ejercicio de diálogo llevado a cabo entre las personas creadoras, los agentes que participen en el programa y el Departamento de Cultura. Así, el presente programa persigue proteger los procesos creativos, adaptarse a sus necesidades y ritmos, procurar condiciones y recursos, al tiempo que contribuye a desarrollar experiencias enriquecedoras en torno a ellos.

Xedea:

Errenteriako Udalak *Legamia* izeneko egitasmoa sustatu du. Errenterian errotu eta eragina izango duen egonaldi eta bitartekaritza programa baten bidez, 2024. urtean, arte biziei (antzerkia, dantza, zirkua) loturiko proiektu artistikoen sorkuntza eta ikerketa prozesuak, edozein fasetan daudela ere, babestu, erraztu eta laguntzea du helburu.

**BIGARRENA.- Dirulaguntzen partida eta banatuko den gehienezko kopurua**

Aurrekontu exekuzio udal arauan oinarrituta, deialdi hau aldez aurretik izapidetzen ari da; hau da, ebazpena eman eta gastua exekutatu aurreko aurrekontu-ekitaldi batean.

Deialdi hau, Errenteriako Udalaren aurrekontu propiotik finantzatuko da. Udalak programa honi 5 0830.481.02.333.10 2024 (283) Arte Biziak Egonaldi Programa partidako 24.000€ eskainiko dizkio 2024. ekitalditik.

Ondoren, egoki den Kreditu aldaketaren bitartez partida horren kopurua handituko balitz, deialde honi egozgarria izango den gastuaren baimentze berria egin liteke.

**HIRUGARRENA.- Pertsona onuradunak**

Arte bizien sorkuntza eta bitartekaritza prozesuak egin ditzakeen edozein pertsona fisikok, juridikok edo pertsona fisikoen taldek egin dezake eskaera. Hemendik aurrera “konpainia” gisa hartuko dira.

Objeto:

El Ayuntamiento de Errenteria ha impulsado el programa Legamia, al objeto de proteger, facilitar y acompañar la creación de proyectos de artes vivas (teatro, danza, circo) y procesos de investigación, sin importar en qué fase se encuentren, mediante un programa de residencias, en el año 2024.

**SEGUNDA.- Partida de subvenciones e importe máximo a distribuir**

En base a la norma municipal de ejecución presupuestaria, esta convocatoria está siendo tramitada anticipadamente; es decir, en un ejercicio presupuestario anterior a la de su resolución y ejecución del gasto.

Esta convocatoria se financiará con presupuesto propio del Ayuntamiento de Errenteria. El Ayuntamiento destinará a este programa 24.000€ de la partida 5 0830.481.02.333.10 2024 (283) Programa residencias artes vivas del ejercicio del 2024

Si dicha partida posteriormente fuese ampliada en base a la correspondiente modificación presupuestaria, podrá autorizarse nuevo gasto imputable a la presente convocatoria.

**TERCERA.- Personas beneficiarias**

La solicitud puede ser realizada por cualquier persona física, jurídica o agrupación de personas físicas que pueda realizar procesos de creación y mediación de artes vivas. A partir de ahora se considerará a estas como “compañía”.

Ezin izango da dirulaguntza hauen onuradun izan, Errenteriako Udalak dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorren laugarren oinarrian jasotako baldintzak betetzen ez duen pertsona fisiko edo juridikoa.

No podrán acceder a la concesión de estas subvenciones aquellas personas o entidades que no cumplan los requisitos que constan en la Base Cuarta de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria.

**LAUGARRENA.- Eskabidea eta harekin batera aurkeztu beharreko agiri eta informazioa**

Interesatutako pertsonek edo erakundeek, Udalak emandako inprimaki normalizatuan aurkeztu beharko dute dirulaguntza eskaera.
Eskaera orriarekin ondorengoa aurkeztu beharko da:

— Erakunde eskatzailearen pertsona arduradunaren edo ordezkariaren NANaren fotokopia.

— Erakunde eskatzailearen IFZren fotokopia, hala badagokio.

— Pertsona fisikoen taldeen kasuan bakarrik: II. Eranskina (oinarriei erantsitako dokumentua)

— Bankuak emandako kontu korrontearen titulartasun ziurtagiria.

— Proiektuaren azalpen txostena, PDF formatoan gutxienez honakoak barne hartuta:

- Proiektuaren laburpena (gehienez 4.000 karaktere)
- Mediaziorako proposamena: zein eragile, dinamika, ekintza mota eta mediazioari eskainiko zaion dedikazio proposamena, egutegi balizko batekin. (gehienez 5.000 karaktere)

**CUARTA.- Solicitudes y documentos e información que deben acompañarse**

Las personas o entidades interesadas deberán presentar solicitud de subvención en impreso normalizado facilitado por el Ayuntamiento.
Además de la solicitud también se deberá presentar:

— Fotocopia del DNI de la persona responsable o representante de la entidad solicitante.

— Fotocopia, en su caso del NIF de la entidad solicitante.

— Sólo en el caso de agrupaciones de personas: Anexo II (documento adjunto a las bases)

— Certificado de titularidad de cuenta emitido por el banco.

— Documento explicativo del proyecto, en formato PDF, incluyendo los siguientes:

- Resumen del proyecto (máx. 4.000 caracteres)
- Propuesta de mediación: propuesta de agente, dinámica, tipo de acción y n.º de horas que se dedicará a la mediación y posible calendario.(máx. 5.000 caracteres)

- Egonaldia den aldirako edo aldietarako (fase ezberdinetan banatu nahi bada prozesua) aurrikusitako lanerako plana edo kronograma proposamen bat. (gehienez 3.000 karaktere)
- Horietaz gain, proiektuaren dossierra, bideo-azalpena edo informazio gehigarri osagarria ere aurkeztu daiteke.

— Konpainiaren eta partaideen curriculuma, ibilbide artistiko eta profesionalarekin.

— Errenteriako Udalak, NISAE datuen bitartekaritza plataforma bidez, eskatzaileak zerga-betebeharrak (Foru Ogasunaren aurrean eta Gizarte Segurantzarekikoak) egunean dituela kontsultatuko du eta, horretarako behar den informazioa eskuratuko du. Kasu horretan, ez da beharrezkoa izango agiri bidez egiaztatzea. Udalak egiaztapen hori egitearen aurka egiten bada, eskaera orrian behar den bezala adieraziko da eta dagokion dokumentazioa aurkeztuko da.

Zergak aipatutako Foru-Ogasunetan ordaintzen ez dituzten eskatzaileek zerga-betebeharrak egunean dituztela adierazten duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

— Zinpeko deklarazioa, non beste sail, erakunde, organismo, eta abarrei egindako dirulaguntzen eskaerak jasoko diren, edo, hala badagokio, eman zaizkien dirulaguntzenak.

— Euskarak eta berdintasunak zein tratamendu izango duen jardueraren hedapenean.

- Plan de trabajo previsto o propuesta de cronograma para el periodo o los periodos de residencia (si se pretende desarrollar el proceso en distintas fases) (máx. 3.000 caracteres)
- Se podrá adjuntar además, dossier del proyecto, video-explicación o información complementaria.

— Currículum de la compañía y de los miembros, junto con su recorrido artístico y profesional.

— El Ayuntamiento, a través de la plataforma NISAE, procederá a consultar si la persona solicitante está al corriente de las obligaciones fiscales (ante Hacienda Foral y frente a la Seguridad Social), así como a obtener la información necesaria a tal efecto. En este caso no resultará necesario acreditarlo documentalmente. Pero, en caso de que la persona solicitante se oponga a esta acreditación, se deberá señalar debidamente en la hoja de solicitud y se presentará la documentación correspondiente.

Las personas solicitantes que no tributen en ninguna de las Haciendas Forales mencionadas deberán de presentar la documentación que indique que están al corriente de las obligaciones fiscales.

— Declaración jurada en la que se hagan constar las solicitudes de subvención formuladas ante otros departamentos, instituciones, organismos, etc., o en su caso, de las que estuvieran otorgadas.

— Tratamiento del euskera y de la perspectiva de género previsto en la difusión de la actividad.

**BOSGARRENA.- Eskabideak aurkezteko lekua eta epea**

Deialdi honetan izena emateko epea deialdia eta oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 20 egun baliodunekoepea amaitu arte egongo da zabalik.

Dirulaguntza-eskabideak aurkeztu ahalko dira:

- Elektronikoki Errenteriako Udaleko web orriko egoitza elektronikoaren bidez (https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/#kultura). Pertsona juridikoek eta Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan aurreikusitako gainontzekoek ezinbestean bide hau erabili beharko dute.

- Aurrez aurre: ZU! Zure Udala – Arreta zerbitzuan (Udaletxe beheko solairua - Herriko plaza,z/g – Tlf: 943 449600).

- Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen, urriaren 1eko, 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein modutan

**QUINTA.- Lugar y plazo de presentación de solicitudes**

El plazo de inscripción para esta convocatoria será de 20 días hábiles a partir del día siguiente a la publicación de la convocatoria y las bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Las solicitudes de subvención podrán presentarse:

- Electrónicamente a través de la sede electrónica de la página web del Ayuntamiento de Errenteria (https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/#kultura). Esta modalidad de presentación es obligatoria para las personas jurídicas y demás obligados recogidos en el art. 14 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

- En ZU! Zure Udala – Servicio de atención (Planta baja Ayuntamiento - Herriko plaza, s/n – Tlf: 943 449600).

- Por cualquiera de los medios previstos en el art. 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

**SEIGARRENA.- Hautapen batzordea eta irizpideak**

Kide anitzeko hautapen batzorde batek aztertu eta baloratuko ditu proposamen guztiak oinarri hauetako zazpigarren puntuan ezarritako ebaluaziorako irizpideen, formen eta lehentasunen arabera.

**SEXTA.- Comité de selección y criterios**

Un comité de selección colegiado estudiará y valorará las propuestas recibidas conforme con los criterios, formas y prioridades de valoración establecidos en el punto séptimo de estas bases.

Balorazio batzordea arte eszenikoetan adituak diren kideez osatua egongo da eta gutxienez ondoko hiru hauek egongo dira: Kultura Departamentuko teknikaria, Errenteriako konpainia egoiliarren ordezkari bat, Udalak kontratatutako kultur bitartekaritza enpresako ordezkari bat.

Hautapen batzordea osatuko duen taldeko kideen zerrenda Errenteriako Udalaren https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/#kultura webgunean argitaratuko da.

**ZAZPIGARRENA.- Eskabideak baloratzeko irizpideak**

Epaimahaia edozein delarik ere, irizpide hauek izango dira kontuan hartuko direnak:

- Proiektuaren kalitatea, berrikuntza.
- Mediazio asmoetarako proiektuak duen potentziala, mediaziorako proposamena bera, eta zeregin honetarako aurreikusten den dedikazioa.
- Bilaketarako gogoa eta zalantzak eta hausnarketak pizteko gaitasun maila.
- Proiektuaren bideragarritasuna.
- CV eta portfolio edo dossier artistikoa.
- Euskarazko proposamenak positiboki baloratuko dira.

Aurkeztutako proiektuak ez dira soilik produkzioetara zuzendutako proposamenak izan behar. Ikerketa eta esperimentazio egonaldietarako proiektuak ere onartuko dira. Era berean dantza, antzerki, zirku edota hauen arteko nahasketa proiektuak aurkeztu ahal izango dira, eta ez da diziplinen arteko lehentasun edo mugarik jarriko.

El comité de selección estará compuesto por expertos en artes escénicas y contará al menos con: el/la técnico/a del Departamento de Cultura, un representante de las compañías residentes de Errenteria, un/a representante de la empresa de mediación cultural contratada por el Ayuntamiento.

La relación de las personas que integrará el comité se publicará en la página web del Ayuntamiento de Errenteria, https://errenteria.eus/es/zu/subvenciones/#cultura

**SÉPTIMA.- Criterios de valoración de las solicitudes**

Al margen de la composición del tribunal, estos serán los criterios de selección:

- Calidad del proyecto, innovación.
- La propuesta de mediación y el potencial que presenta el proyecto para este fin y estimación de la dedicación prevista.
- Vocación de búsqueda, y capacidad para generar dudas y reflexiones.
- Viabilidad del proyecto
- CV y portfolio o dossier artístico.
- Las propuestas en euskera se valorarán positivamente.

Los proyectos presentados no tendrán por que ser producciones, sino que podrán también presentarse proyectos de investigación y experimentación. Del mismo modo, podrán presentarse proyectos tanto de danza, teatro o circo, como propuestas que transiten entre estos lenguajes, y no se priorizará ni discriminará por disciplina.

**ZORTZIGARRENA.- Hautatutako proiektuen zerrenda**

Hautapen batzordeak jasotako proposamenak ebaluatu ondoren, Legamia deialdian hautatuak izan diren proiektuak, onuradunak eta zein baliabide jasoko duen proposamenak jasotzen duen txostena emango du, behar bezala arrazoitua.
Bertan zehaztuko da ere zenbat esleituko den eszenografia eta jantzietarako hala badagokie.

**OCTAVA.- Relación proyectos seleccionados**

Evaluados los proyectos recibidos, el comité de selección emitirá informe en el que indique los proyectos, beneficiarios y recursos que recibirá cada seleccionado en la convocatoria Legamia, debidamente motivada.
También se reflejará que cantidad destinada a escenografía y vestuario, en su caso.

**BEDERATZIGARRENA.- Dirulaguntzaren ebazpena**

Hautapen batzordearen erabakia kontutan izanda, Kultur zinegotzi delegatuak behar bezala arrazoitutako ebazpen-proposamena egingo du.

Proposamen horrek dirulaguntza ematea proposatzen dituen proiektuen zerrenda eta zenbatekoa adieraziko ditu, bere ebaluazioa eta hori egiteko erabilitako balorazio-irizpideak zehaztuta, hala nola ezestea proposatutako eskaera zerrenda, baita horiek ezesteko arrazoiak ere.

Ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio.

Ebazpena udal iragarki oholean eta udal web gunean argitaratuko da. Hein berean banan-banan jakinaraziko zaie dirulaguntza ukatzen zaien pertsona edo entitate eskatzaileei.

**NOVENA.- Resolución de la subvención**

Teniendo en cuenta la decisión del comité de selección, la Concejala Delegada de Cultura formulará una propuesta de resolución debidamente motivada.

Dicha propuesta expresará la relación de proyectos para las que se propone la concesión de la beca y su cuantía, especificando su evaluación y los criterios de valoración seguidos para efectuarla, así como las solicitudes cuya desestimación se propone y los motivos en que se fundamenta.

La resolución pone fin a la vía administrativa.

La resolución se publicará en el tablón de anuncios municipal y en la página web municipal. Igualmente se notificará individualmente a las personas o entidades solicitantes a las que se deniegue la subvención.

**HAMARGARRENA.- Deialdiaren emaitza eta onarpena.**

Deialdiaren emaitza, Udalaren https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/#kultura webgunean argitaratuko da.

Emaitza argitaratu eta hamabost eguneko epean pertsona edo erakunde onuradunek dirulaguntzari berariaz uko egiten ez badiote, laguntza onartutzat emango da.

**HAMAIKAGARRENA.- Jabetza intelektuala eta irudi eskubideak**

Parte-hartzaileak izango dira aurkezten dituzten proiektuen egile eta originaltasunaren erantzule, eta proiektuen gaineko jabetza intelektualeko eskubide guztiak legez dagozkiela bermatuko dute.

Hautatutako sortzaileak Errenteriako Udalari utziko dizkio proiektuari dagozkion irudi eskubideak, Egonaldi programa honi buruzko jardueren berri emateko argitalpen, katalogo edo dena delakoetarako, bai paperean zein modu digitalean argitaratzeko. Guzti hauek programaren difusioarekin lotutako beharrak izango dira, inoiz ez helburu komertzialak dituztenak, eta betiere konpainia edota sortzaileekin adostutakoak izango dira.

Programa honen barruan garatutako proiektuek etorkizunean izan ditzaketen ekintza komunikatiboetan (dossier, afitxa eta antzekoetan) Errenteriako Udalaren eta Kulturakreaktiboaren logotipoa gaineratu beharko dute.

**DÉCIMA.- Resultado de la convocatoria y aceptación.**

El resultado de la convocatoria se comunicará a través de la página web del Ayuntamiento https://errenteria.eus/es/zu/subvenciones/#cultura.

Si en el plazo de quince días tras la fecha de publicación del resultado las personas o entidades beneficiarias no renuncian expresamente a la misma, se entenderá que esta queda aceptada.

**UNDÉCIMA.- Propiedad intelectual y derechos de imagen**

Las personas participantes serán responsables de la autoría y la originalidad de los proyectos presentados y garantizarán que legalmente les corresponden todos los derechos de propiedad intelectual sobre el proyecto.

Las personas creadoras seleccionadas cederán al Ayuntamiento de Errenteria los derechos de imagen del proyecto, para dar a conocer las actividades relacionadas con este programa de estancias, para catálogos y análogos, para su publicación tanto en papel como en formato digital. Todas ellas serán necesidades relacionadas con la difusión del programa, nunca con objeto comercial, y siempre se acordará con la compañía o con la persona creadora.

En las acciones comunicativas que en el futuro pueden tener los proyectos desarrollados en el marco de este programa (dossier, cartel o similares) se deberá incluir el logotipo del Ayuntamiento de Errenteria y de Kulturakreaktiboa.

**HAMABIGARRENA.- Dirulaguntzaren onuradunaren betebeharrak**

Deialdian aurkezteak honako baldintza hauek onartzea dakar:

- Gutxienez astebeteko eta gehienez 4 asteko iraupena duen egonaldi batean parte hartzea, elkarren segidakoak izan beharrik gabe.

- Egonaldiak batez ere astegunez izango dira, astelehenetik ostiralera (15:00ak arte), hala ere espazioen erabilerak baimentzen badu, asteburuetan ere luzatu daitezke.

- Konpainiak egonaldia edo egonaldiak aurrera eramateko data proposamena egingo du 2024ko martxoaren 1etik 2024ko abenduaren 31ko denbora tartean, betiere Udalarekin espazioen erabilgarritasunaren arabera datak adostuko badira ere. Egutegia ezin bada adostu, beka eta egonaldian parte hartzeko aukera galduko dira.

- Deialdi honetan parte hartzeak Legamia egitasmoaren asmo eta xedeekin bat egitea suposatzen du. Hau da, sorkuntza prozesua egonaldian garatzeaz gain, lan hau herriko eragileekin partekatzeko motibazioa edo borondatea beharrezkoa izango da. Partekatze honen nondik norakoak (mediazio dinamikak eta edukiak, egutegiak, epeak, moduak,...) alde guztien akordio eta ikuspuntuak bilatuko duen elkarrizketaren bidez erabakiko da.

**DUODÉCIMA.- Obligaciones de las personas beneficiarias de subvenciones**

Participar en la convocatoria supone la aceptación de las siguientes condiciones:

- Participar en una residencia con una duración mínima de una semana y máxima de 4 semanas, sin necesidad de que sean consecutivas.

- Las residencias serán principalmente entre semana, de lunes a viernes (hasta las 15:00 horas), aunque si el uso de los espacios lo permite, también pueden prolongarse los fines de semana.

- La compañía propondrá la fecha para la o las residencias entre el 1 de marzo de 2024 y el 31 de diciembre de 2024, aunque las fechas se acordarán con el Departamento de Cultura, en función de la disponibilidad de los espacios. En caso de que no se pueda acordar el calendario, se perdería la beca y la posibilidad de participar en la residencia.

- Participar en la presente convocatoria supone aceptar la motivación y los objetivos del programa, por lo que, además de desarrollar el proceso creativo durante la residencia, será necesaria la implicación y la voluntad de compartir el trabajo con agentes locales. La forma que tome esta mediación (las propias dinámicas y contenidos de mediación, calendarios, plazos,…) se decidirán a través de un diálogo que buscará el acuerdo, el consenso y aunar los puntos de vista y las necesidades de todas las partes.

**HAMAHIRUGARRENA.- Eskaintzen diren baliabideak**

Errenteriako Udalak honako baliabideak eskaintzen dizkiei hautagaiei. Sortzaileak edo sortzaile taldeak baliabide bat edo gehiago eskura ditzake, sormen-proiektuaren beharren eta fasearen arabera. Eskaera orrian adierazi beharko da zein baliabide beharko dituen, sorkuntzarako espazioa eta mediazio taldearekin elkarlana gutxienekoa izanda.

**3.1. Sorkuntzarako espazioak**

Errenteriako Udalak proiektu motaren, ezaugarrien, sorkuntza prozesu fasearen eta erabilgarritasunaren arabera espazio ezberdinak eskainiko ditu: Lekuona Fabrikako Sorlekua, edota Niessen Kulturgunea, adibidez.

**3.2. Mediazio taldearekin elkarlana**

Sorkuntza lanaren inguruko mediazio proposamena eraiki eta burutzeko konpainiaren parte-hartzea ezinbestekoa izango bada ere, proiektu hauek aurrera ateratzeko mediazio taldearen elkarlan eta babes osoa izango da (tokiko eragileekin harremanak, logistika,...). Mediazio talde hau, Kultura Departamentuko kideez, Errenteriako konpainia egoiliarrez, eta Lekuona Fabrikako mediazio zerbitzuko kideez osatuta egongo da. Talde hori arduratuko da, konpainiarekin edo sortzailearekin batera, tokiko eragileekin dinamika diseinatu eta gauzatzeaz, koaderno pedagogikoak egiteaz, ekintzez eta abarrez.

**DECIMOTERCERA.- Recursos que se ofrecen**

El Ayuntamiento de Errenteria ofrecerá los siguientes recursos a las personas o compañías seleccionadas, que podrán obtener uno o más recursos, en función de las necesidades y la fase del proyecto creativo. Se deberá indicar en el impreso de solicitud los recursos requeridos, entendiendo como mínimo el uso de un espacio de trabajo y la colaboración del equipo de mediación.

**3.1. Espacios de trabajo**

Se pondrán a disposición distintos espacios en función de la tipología, las características, la fase en la que se encuentre el proceso y la disponibilidad de espacios: Sorlekua de Lekuona Fabrika, o el auditorio de Niessen Kulturgunea, por ejemplo.

**3.2. Colaboración con el equipo de mediación**

Aunque para diseñar y llevar a cabo la propuesta de mediación sea indispensable la participación de la compañía, se contará con la colaboración y el apoyo total del equipo de mediación a la hora de realizar los proyectos (relaciones con los agentes locales, logística, etc.…). Este equipo de mediación, estará formado por miembros del Departamento de Cultura, las compañías residentes de Errenteria y el personal del servicio de mediación de Lekuona Fabrika. Este grupo se encargará, junto con la compañía o la persona creadora, de diseñar y llevar a cabo la dinámica con agentes locales, la elaboración de cuadernos pedagógicos, las acciones, etc.

**3.3. Ostatua**

Egonaldiak iraun bitartean Errenteriako Udalak hautazko ostatua eskainiko dio sortzaile edo sortzaile taldeari ezarritako erabilera prozedura jarraituz. Errenteriako alde zaharrean dagoen apartamentuan 8 lagun arte ostatu hartu ahal izango dute, gela bikoitzatan (4X2). Aldiro talde edo konpainia bakar batek erabili ahalko du apartamentu hau.

**3.3. Alojamiento**

Mientras dure la residencia el Ayuntamiento de Errenteria ofrecerá alojamiento opcional a las compañías. Este apartamento está situado en el casco antiguo de Errenteria, y puede alojar hasta ocho personas, en habitaciones dobles (4x2). El apartamento podrá ser utilizado por una única compañía o grupo cada vez.

**3.4. Baliabide teknikoak**

Egonaldi teknikoen kasuan Kultura Departamentuko ikusentzunezko teknikarien gainbegiratzea izango da. Konpainiak ordu kopuru bat proposatu beharko du, ondoren Udalarekin egonaldiaren behar eta iraupenaren arabera adostuko dena. Gune eszenikoetan egun dauden baliabide teknikoak konpainien zerbitzura jarriko dira, betiere hauek kudeatzeko teknikari profesionala duten bitartean.

**3.4. Recursos técnicos**

En las residencias técnicas se contará con la supervisión del técnico de audiovisuales del Departamento de Cultura. La compañía deberá proponer un número de horas, que posteriormente se acordará con el departamento, en función de las necesidades, la disponibilidad, y la duración de la estancia. Los recursos técnicos con los que actualmente cuentan los espacios escénicos estarán a disposición de las compañías, siempre que dispongan de personal técnico profesional para manipularlos.

**3.5. Baliabide ekonomikoak**

Aurkeztutako proiektu bakoitzak gehienez 4.000,00€-ko beka jasoko du. Ekarpen honi, kasuan-kasu dagokion atxikipena aplikatuko zaio.

Taldeen kasuan, zenbateko hori eskatutako proportzioan banatuko da, eta kasu bakoitzari dagozkion atxikipenak aplikatuko zaizkio.

Zenbatekoa egonaldi-egun, mediazioari eskainitako denbora eta konpainia osatzen duen pertsona kopuruaren arabera kalkulatuko da. Honako hau hautapen batzordeak baloratuko du.

**3.5. Recursos económicos**

Cada proyecto seleccionado recibirá como máximo una beca de 4.000,00 €, a los que se le aplicarán las retenciones correspondientes a cada caso.

En caso de agrupaciones, dicha cantidad se repartirá en la proporción solicitada, a la que se le aplicarán las retenciones correspondientes a cada caso.

La cantidad otorgada se calculará en base a la duración de la residencia, la previsión de dedicación al proceso de mediación, y el número de integrantes de la compañía. Estos aspectos los valorará, junto con la propuesta artística, el comité de selección.

Sortzaile eta kopainiek egiten duten mediazio proposamena lanerako abiapuntu gisa ulertuko da, zeinaren gainean elkarlana garatu ahalko den, ez proposamen itxi bezala.

La propuesta de mediación no se entenderá como una propuesta cerrada sino como un planteamiento de inicio sobre el que desarrollar el trabajo de colaboración.

**3.6. Beste baliabide batzuk:**

Deialdi honetan 600 € arteko espezieean emandako laguntza gehigarria ere badago, hautatutako konpainia bakoitzeko eman daitekeena eta jantzietan eta/edo eszenografian izango dena, betiere arlo horietan lan egiten duten hezkuntza proiektuekin edo sortzen ari diren Udal proiektuekin lankidetzan egiten badira. Kasu bakoitzean lankidetzarako aukerak eta horien bideragarritasuna aztertuko dira.

**3.6. Otros recursos:**

En esta convocatoria existe una ayuda adicional en especie de hasta 600 € por compañía seleccionada en vestuario y/o escenografía siempre que estos se realicen en colaboración con los proyectos educativos o emergentes municipales que trabajan en estas materias. En cada caso se estudiarán las posibilidades de colaboración y la viabilidad de las mismas.

Esleituko diren espezie laguntza gehigarri hauek Legamia deialdian onartuak izan diren onuradunak eta proiektuak ezagutzerakoan bideratu eta jakinaraziko dira.

Las ayudas en especie complementarias se adjudicarán cuando se den a conocer los beneficiarios y proyectos de Legamia.

**HAMALAUGARRENA.- Dirulaguntzen ordainketa**

Beka bi zatitan ordainduko da, %70a egonaldi hasieran eta %30a memoria aurkeztu eta hilabetera.

Jantzietarako eta eszenografiarako espezieko 600 euroko laguntza gehigarria eskatu eta onartzen bada, bekaren bigarren zatiarekin batera ordainduko da, azken memoria aurkeztu eta gastu horiek justifikatu ondoren.

Jasotako laguntzek legez dagokien zerga atxikipena aplikatuko zaie.

**DECIMOCUARTA.- Abono de la subvención**

La beca se abonará en dos partes: el 70% al inicio de la residencia, y el 30% restante al mes de presentar la memoria final.

En caso de solicitar y ser aprobada la ayuda en especie adicional de 600€ para vestuario y escenografía, esta será abonada junto con la segunda parte de la beca, tras la presentación de la memoria final y la justificación de estos gastos.

El importe de las ayudas está sujeto a la retención fiscal establecida legalmente.

Behin diru ekarpena jaso ondoren konpainiak egonaldiarekin ez jarraitzea erabakiko balu edo dagokion bete beharrak ez dituela betetzen ikusiko balitz, jasotako diru kopurua itzuli beharko du.

En el caso de que la compañía, una vez recibida la aportación económica, decidiera no continuar con la residencia o se comprobara que no cumple con las obligaciones correspondientes, deberá devolver el principal recibido.

**HAMABOSGARRENA.- Dirulaguntzaren justifikazioa**

Egonaldi programa honetan parte hartzen duen sortzaile edo sortzaile taldeak egonaldiari buruzko memoria bat aurkeztu beharko du, sorkuntza prozesuaren dokumentatze lan moduan balio beharko duena. Proiektua amaitu eta gehienera, hiru hilabeteko epean. Beti ere, urtarrilaren 2025ko 31ra arte.

Memoria aurkeztu ondoren ordainduko da dirulaguntzaren bigarren zatia.

**DECIMOQUINTA.- Justificación de la subvención**

La persona o la compañía que participe en este programa de residencias deberá presentar una memoria relativa a su estancia que servirá como trabajo de documentación del proceso creativo. Se deberá presentar, como máximo, en el plazo de tres meses después de haber finalizado el programa. En todo caso, hasta el 31 de enero de 2025.

La segunda parte de la subvención se abonará una vez presentada la memoria.

**HAMASEIGARRENA.- Justifikazioa egiaztatzea**

Kultura Departamentuko teknikariak egiaztatuko du aurkeztutako memoria egokia dela eta ondorioz, dirulaguntza egoki justifikatu dela, hala nola jarduera gauzatu dela eta dirulaguntza eman edo gozatzeko erabaki duen helburua bete dela. Horretarako dagokion txostena emango du.

**DECIMOSEXTA.- Comprobación de la justificación**

El técnico/a del Departamento de Cultura comprobará la adecuada justificación de la subvención, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención, a cuyo efecto emitirá el correspondiente informe.

**HAMAZAZPIGARRENA.- Finantziazioaren muga, bateragarritasuna eta aldiberekotasuna bestelako dirulaguntzekin**

Udalak araudi hau betez emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk xede berarekin emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

**DECIMOSÉPTIMA.- Límite de la financiación, compatibilidad y concurrencia con otras subvenciones**

Las subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento en virtud de la presente normativa serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualquiera Administraciones o entes públicos o privados.

Aurrekoa gertatuz gero, onuradunak jakin bezain laster jakinarazi beharko dio organo emaileari lortu dituela dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide horiek, eta, nolanahi ere, jasotako fondoei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

En el supuesto anterior, la persona beneficiaria deberá comunicar al órgano concedente la obtención de las citadas subvenciones, ayudas ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas, tan pronto como se conozcan y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak inoiz ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez bakarrean, ezta aldi berean beste dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

**HEMEZORTZIGARRENA.- Araubide Juridikoa**

Dena den, dirulaguntza deialdiaren oinarri zehatz hauetan aurreikusirik gabeko guztian, ondorengo hauek ezarririkoa beteko da: Errenteriako Udaleko dirulaguntzen oinarri orokorrak, Errenteriako Udalak dirulaguntzak ematea arautzeko Udal ordenantza, Dirulaguntzen **3**8/2003 Lege Orokorra**,** abenduaren 17koa, eta 887/2006 Errege Dekretua, eta hura garatzeko arautegia.

**DECIMOCTAVA.- Régimen Jurídico**

En todo lo no previsto en las presentes bases específicas se estará a lo dispuesto en las Bases generales de subvenciones, en la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria, en la Ley 38/2003, de 17 de diciembre, General de Subvenciones, en el Real Decreto 887/2006, y demás normativa de desarrollo.

**ERANSKINA II**

**(Pertsona fisikoen taldeen kasuan bakarri betetzeko)**

**ANEXO II**

**(A rellenar sólo en el caso de agrupación de personas físicas)**

ERRENTERIAKO UDALA
Kultura

AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA
Cultura

**PERTSONA FISIKOEN TALDEEN LANKIDETZA-AKORDIOA, DIRULAGUNTZEN ONURADUN IZATEKO**

**Legamia 2024: Arte bizien sorkuntza eta mediazio egonaldi programetarako beka**

**BILDUTAKOAK**

- Alde batetik, ______________________________ jauna/andrea NAN: __________________ helbidea: _____________________________________.
- Alde batetik, ___________________________ jauna/andrea ……NAN: ____________________ helbidea: _____________________________________.

**(Gehitu taldeak dituen pertsona guztiak)**

Alderdiek elkarri aitortzen diote hitzarmena egiteko gaitasuna eta zilegitasuna, eta, horretarako, honako hau,

**AZALTZEN DUTE**

1.- Akordio honen helburua pertsona fisikoen talde bat eratzea da, LEGAMIA 2024 DIRULAGUNTZAREN deialdiaren onuradun izateko: arte bizietako sorkuntza- eta bitartekaritza-egoitzen programetarako beka.

2.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 11. artikuluak ezartzen duenez, pertsona fisiko edo juridikoen talde publiko edo pribatu nortasunik gabeak direnean, berariaz jaso beharko dira,

**ACUERDO DE COLABORACIÓN DE AGRUPACIÓN DE PERSONAS FÍSICAS PARA SER BENEFICIARIAS DE SUBVENCIONES**

**Legamia 2024: beca para programas de residencias de creación y mediación de artes vivas**

**REUNIDOS/AS**

- De una parte, D./Dña.__________________________________, con DNI _________________ y domicilio en ____________________________________________.
- De una parte, D./Dña.__________________________________, con DNI_____________________ y domicilio en ____________________________________________.

**(Añadir tantas personas como tenga la agrupación)**

Las partes se reconocen capacidad y legitimidad para convenir, para cuyo efecto,

**EXPONEN**

1.- Que el objetivo del presente acuerdo es constituir una agrupación de personas físicas a fin de obtener la condición de beneficiaria de la convocatoria de la SUBVENCIÓN LEGAMIA 2024: beca para programas de residencias de creación y mediación de artes vivas **.**

2.- Que el artículo 11 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, establece que cuando se trate de agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas sin personalidad, deberán

bai eskaeran, bai dirulaguntza emateko ebazpenean, elkarteko kide bakoitzak bere gain hartutako exekuzio-konpromisoak, bai eta horietako bakoitzak aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere, eta horiek ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da, onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko adinako ahalordea izango duena. Ezin izango da elkartea desegin lege honen 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte.

hacerse constar expresamente, tanto en la solicitud como en la resolución de concesión, los compromisos de ejecución asumidos por cada miembro de la agrupación, así como el importe de subvención a aplicar por cada uno de ellos, que tendrán igualmente la consideración de beneficiarios. En cualquier caso, deberá nombrarse un representante o apoderado único de la agrupación, con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que, como beneficiario, corresponden a la agrupación. No podrá disolverse la agrupación hasta que haya transcurrido el plazo de prescripción previsto en los artículos 39 y 65 de esta ley.

3.- Sinatzaileek ordezkatzen dituzten pertsonek Legamia 2024: arte bizietako sorkuntza- eta bitartekaritza-egoitzen programetarako beka deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituztela, onuradun izateko, eta elkarrekin honako proiektu eta/edo jarduera hau gauzatu nahi dutela:

"_______________________________________________
_______________________________________"

3.- Que las personas representadas por los firmantes reúnen los requisitos establecidos en las bases de la convocatoria de Legamia 2024: beca para programas de residencias de creación y mediación de artes vivas para tener la condición de beneficiarias, y que pretenden llevar a cabo conjuntamente, el siguiente proyecto y/o actividad:

"_______________________________________________
_______________________________________"

**EBATZI**

Lankidetza-hitzarmen hau sinatzea, aurreko hirugarren atalean identifikatutako proiektua eta/edo jarduera gauzatzeko, honako klausula hauen arabera:

**ACUERDAN**

Suscribir el presente acuerdo de colaboración para la ejecución del proyecto y/o actividad identificado en el apartado tercero anterior de acuerdo con las siguientes:

**KLAUSULAK**

**Lehenengoa.-** Alderdiek adierazi dute lehenengo atalean identifikatutako deialdian batera parte hartu nahi

**CLÁUSULAS**

**Primera.-** Las partes manifiestan su voluntad de concurrir conjuntamente a la convocatoria identificada en

dutela.

**Bigarrena.-** Alderdiek _______________________________________________ _________________________ jauna/andrea identifikatu dute elkartearen ordezkari gisa (NAN: _____________________). Ordezkari horrek behar besteko ahalmena izango du erakunde onuradun gisa taldeari dagozkion betebeharrak betetzeko.

**Hirugarrena.-** Talde honetako kideek erantzukizun solidarioa izango dute diruz lagundutako jarduera itzultzeko betebeharrei dagokienez, bai eta diruz lagundutako jardueratik erator daitezkeen arau-hauste administratiboei dagokienez ere.

**Laugarrena.-** Akordio hau sinatuta, pertsona fisikoek adierazten dute banaka betetzen dituztela Legamia 2024rako deialdiaren oinarrietan aurreikusitako baldintzak: arte bizietako sorkuntza- eta bitartekaritza-egoitzen programetarako bekak, onuradun izateko, eta, bereziki, adierazten dute ez daudela sartuta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan onuradun izateko ezarritako debekuetako batean ere.

**Bosgarrena.-** Taldeko kideek konpromisoa hartzen dute proiektu eta/edo jarduera bakoitzerako ondoren zehazten diren ehunekoak pertsona bakoitzeko gauzatzeko.

el apartado primero.

**Segunda.-** Las partes identifican como representante de la agrupación a Don/Doña _______________________________________________ ________________________, con DNI ____________________. Este representación tendrá poder suficiente para cumplir con las obligaciones que, como entidad beneficiaria, corresponda a la agrupación.

**Tercera.-** Los miembros de la presente agrupación responderán solidariamente respecto de las posibles obligaciones de reintegro en relación a la actividad subvencionada, así como de las infracciones administrativas que pudieran derivarse de la actividad subvencionada.

**Cuarta.-** Con la firma del presente acuerdo las personas físicas declaran que cumplen a título individual los requisitos previstos en las bases de la convocatoria de Legamia 2024: beca para programas de residencias de creación y mediación de artes vivas para tener la condición de beneficiarias y en especial, declaran no estar incursas en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiarias señaladas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre.

**Quinta.-** Las personas integrantes de la agrupación se comprometen a ejecutar los porcentajes por persona que se detallan a continuación para cada proyecto y/o actividad.

**1.Proiektua eta/edo jarduera:**

**1. Proyecto y/o actividad:**

| **Nombre / Apellidos** | **Compromisos de ejecución** | **Porcentaje de subvención que les corresponderá** |
|---|---|---|
| | | |
| Total | 100 % | 100 % |

**Seigarrena.-** Sinatzaileek konpromisoa hartzen dute akordio honen indarraldiari eusteko eta elkartea ez desegiteko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte.

**Sexta.-** Las personas firmantes se comprometen a mantener la vigencia del presente acuerdo y no disolver la agrupación hasta que transcurra el plazo de prescripción previsto en los artículos 39 y 65 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre.

Lankidetza-hitzarmen honetan adierazitakoarekin ados daudela adierazteko, alderdi guztiek honako hau sinatu dute:

En prueba de conformidad con lo expresado en este acuerdo de colaboración, se firma por todas las partes:

**Izena**

________________________________________

**Nombre**

________________________________________

AITORTZEN DU sinatzaileak, bere ardurapean, adierazi dituen datuak egiazkoak, zehatzak, osoak eta eguneratuak direla.

DECLARA la persona firmante, bajo su responsabilidad, que todos y cada uno de los datos aportados son veraces, exactos, completos y actualizados.

DATUEN BABESA. Datu pertsonalak babestearen inguruan

PROTECCIÓN DE DATOS. De conformidad con la normativa

indarrean dauden arauei jarraiki, hau adierazten dizugu: inprimaki honetan jasotako datuak egiaztatu edo osatu ahal izango dira beste administrazio publiko batzuei kontsulta eginda. Datuok Udalak tratatuko ditu bere eskuduntzen araberako eginkizunak eta zerbitzuak aurrera eramateko. Udalak zure datuak legearen arabera tratatuko ditu, beharrezko segurtasun neurriak hartuz eta hirugarrenei lagapenak legeak aurreikusitako kasuetan bakarrik burutuz.

Informazio gehiagorako kontsutatu gure pribatasun politika:
https://uzt.gipuzkoa.eus/home.do?De=EU06712216.

Era berean, jakinarazten dizugu datuak atzitu, zuzendu, ezereztu, berauen aurka agertu, tratamentua mugatu eta datuen eramangarritasunari buruz dagozkizun eskubideak baliatzeko aukera duzula, idatziz, telematikoki, aurrez aurre edo posta arruntaz Udalera zuzenduz; Herriko Plaza z/g 20100 Errenteria.

Azkenik, beste pertsona fisiko batzuen datuak helarazten baldin badituzu, pertsona horiei aurreko guztiaren berri eman beharko diezu.

vigente en materia de Protección de Datos de Carácter Personal, le informamos que los datos personales recabados en este impreso se podrán verificar o completar mediante consulta a otras administraciones publicas. Dichos datos serán tratados por el Ayuntamiento, para la realización de tareas y servicios propios en el ámbito de sus competencias. El Ayuntamiento tratará sus datos acorde a la normativa vigente, aplicando las medidas de seguridad necesarias y no serán cedidos a terceros salvo exigencias legales.

Para más información consulte nuestra política de privacidad: https://uzt.gipuzkoa.eus/home.do?De=CA06712216.

Asimismo se le informa de la posibilidad de ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación, oposición, limitación de tratamiento y portabilidad de datos mediante el oportuno escrito, por medios electrónicos o bien presencialmente o por correo convencional al Ayuntamiento, Herriko plaza z/g 20100 Errenteria.

Por ultimo, si facilita datos personales de otras personas físicas deberá, previamente informarles de los anteriores extremos.